

# Hizkuntza politika «lurralde ikuspegitik» planifikatzeko bidea proposatu du UEMAk

- Euskararen indarberritze prozesua bere zabalean «azkartu eta eraginkorragoa» bihurtzeko bidea dela esan du.
- Lurgune euskaldunenetarako «lege babesa eta plan integrala» lortzeko urratsak abiarazi ditu.

Arantxa Iraola

HERNANI— Albisteari oihartzuna eta sendotasuna emateko ahalegina argia izan zen; UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen zuzendaritza batzordea osatzen duten alkateek eta zinegotziek aurkeztu zuten atzo *Lurralde estrategia euskarentzat* dokumentua, Hernanin (Gipuzkoa) egin zuten ekitaldi batean. EH Bilduko eta EAJko udal ordezkariak batera azaldu ziren, proposamenaren inguruan bat eginda. Talde independentetako hautetsiak ere badira mankomunitatean. Hizkuntza politiketan zuztarreko aldaketa bat abiarazteko asmoz landu dute: nahi dute hizkuntza politika «lurralde ikuspegitik» planifikatzeko estrategia baterako abiaburua izatea. Atzean duten komunitatearen sendotasuna aintzat hartu behar da: mankomunitateak 120 udalerri batzen ditu gaur egun, eta 350.000 biztanleko lurgunea ordezkatzeko du.

Hernani ere UEMako kidea da, eta Xabier Lertxundi alkateak egin zien harrera agerraldian parte hartu duten ordezkari publikoei. Atzo aurkeztu zuten proposamenaren «anbizioa» goraiatu zuten. Zuzendaritza batzordeko kide dira Ataungo alkate Martin Aramendi, Busturiko zinegotzi Maitane Zearreta, Leitzako alkate Dabid Anaut, Zarauzko zinegotzi Irune Urbietza, Hernaniko zinegotzi Axier Mingo, Markina-Xemeingo alkate Iratxe Lasa, Mallabiko alkate Igor Agirre, Asteasuko zinegotzi independente Larratiz Alkorta, Aulestiko alkate Irati Urberuaga, Lesakako zinegotzi Eneko Fernandez eta Azpeitiko zinegotzi Aitor Larrañaga. Batasun irudia agerian utzi zuten agerraldian.



## %70

**EUSKARAREN EZAGUTZA UDALERRI EUSKALDUNETAN.** Udalerri euskaldun esaten zaie UEMako kide izateko baldintzak betetzen dituzten herriei. Horretarako, herritarren ezagutzari erreparatu zaio. Gaur egun, haxe da jarrita dagoen langa: herritarren %70 baino gehiagok jakin behar dute euskara. Indizean balio hori gaintzen duten udalerriak sar daitezke UEMan. Erabilera aintzat hartuta egiten diren sailkapenak ere berebiziko garrantzia dute udalerri euskaldunen egoera ulertzeko orduan: erabilera %80tik gora duten eremuak arnagune deituak dira, eta %60tik gorako erabilera duten arnagune erasan izena hartzen dute. Azken ikerketen arabera, horiek guztiak desagertzeko bidean daude.

Kezka aurretik ere piztua zen, baina iazko udaberrian agertu zen gordin-gordin; UEMaren enkarguz Siadecok egindako proiektzioak argi utzi zuten egungo hizkuntza politikekin ataka zailan daudela eremurik euskaldunenak; lan horretan, halaber, adierazi zuten euskararen arnaguneak desagertzeko zorian daudela. Udazkenean, UEMak nazioarteko konferentzia bat

egin zuen Azpeitian (Gipuzkoa), eremu horien garrantziaz ohartarazteko eta euskararen biziberritze osoari zer-nolako ekarpena egiten dioten gogorarazteko. Hitzetatik ekintzetarako bidea egin nahi dute orain. «Azken hamarkadetan egin den lanari esker, euskarak aurrerapauso esanguratsuak eman ditu ezagutzan eta esparru formaletan», azaldu zuen gaurko agerraldian UEMako lehendakari Martin Aramendik. «Hala ere, datuek eta joera soziolinguistikoek erakusten dute euskara indartsuen dagoen eremuetan ere ahultze zantzu kezkarriak ageri direla». Hor eragin nahi dute.

«Baliabide publikoen eraginkortasuna hobetu beharko litzateke, lurgune euskaldunari dagokion garrantzia aitortuta»

**MARTIN ARAMENDI**  
UEMAko lehendakaria

«Lurgune euskalduna indartzeko, premiazkoa da lege esparru egokia garatzea»

**MAITANE ZEARETTA**  
Busturiko zinegotzia

Idea nagusi bat dago proposamenaren atzean. Orain gogora ekarri dute berriro: «UEMaren ustez, lurgunerik euskaldunenean egindako ahaleginek inpartu handiagoa dute erabileran eta komunitatearen sendotzean». Soziolinguistikaren arloan oihartzuna izan duten azken urteotako hainbat ikerketa daude uste horren atzean, bereziki Iñaki Iurrebasoren doktore tesia eta horren ondorioz plazaratu dituen proposamenak. Hain justu ere, Azpeitian UEMak egindako konferentziaren amaieran, Iurrebasok berak hitzaldia egin zuen, eta zera proposatu: hizkuntza politika eremuka lantzea, euska-





**ZUZENDARITZA BATZORDEA.** UEMako ordezkari-  
gorena osatzen duten udal agintariak, atzo, estrategia  
aurkezteko egin zuten agerraldiaren atarian. BERRIA



## Hiru norabidetan

«Lurgune euskaldun» deitu  
duten eremuan eragiteko hiru  
ardatz orokor proposatu ditu  
UEMAk. Hauexek dira:

● **Politika integraletarako  
«jauzia».** Arazo bat antze-  
man dute urteotan UEMan:  
«Ondorio nabarmenagoak  
dituzte hizkuntza politikako  
sailaz bestelakoetan egiten  
diren politika publikoek, eus-  
kara sailetan egiten direnek  
baino». Horiek horrela, guztiz  
itxuraldatzen ikusi dituzte  
hainbat eremu euskaldun,  
hizkuntzaren irizpidea ain-  
tzat hartu ez duten hainbat  
erabaki politikoren ondorioz.  
2016an, udal legea onartu  
zen propio Araba, Bizkai eta  
Gipuzkoan, toki erakunde-  
en jardunbideak arautzeko, eta  
proposamenean jaso dute  
haren bidez «prebentzio» iriz-  
pide batzuk eman zirela halako  
desitxuraterik izan ez zedin.  
Baina herabeegia izan da beti  
ahalegin hori. Batetik, adabaki  
bat delako: «Gainerako eremu  
administratiboetan oraindik  
ez da lehen urrats hori bera  
egin», gogoratu dute. Beste-  
tik, «prebentzioaz» bestelako  
neurriak ere behar direlako.  
«Zeharkakotasunez» lurgune  
euskaldunen egoera sozio-  
linguistikoa sendotuko duten  
politika publiko integralak  
behar dira. «Kasu egin behar  
zaie alderdi demografikoei,  
ekonomiari, lurralde antolake-  
tari, harrerari eta herri horiek  
komunitate jasagarri eta bizi

gisa sendotuko dituzten alder-  
diei, eta horietan eragin».

● **Politikarik aurreratuenak  
egiteko tokiak.** Lurgunerik  
euskaldunenek politika publiko  
«aurreratuak» egiteko tokiak  
izan behar dutela esan du  
UEMAk proposamenean. Hez-  
kuntzan, helduen euskaldun-  
tzean, kulturean, hedabideetan,  
aisian... Alderdi guztietan nahi  
dituzte politika sakonagoak.  
«Lanketa hori araugintzaren  
eta sustapenaren bitartez egin  
beharko da ezinbestean».

● **Kontzientzia, ahalduntzea.**  
Ingurune euskaldunenetako  
hiztunen ahalduntzean eginak  
ditu aurrerabideak UEMak, eta  
hor sakontzen jarraitu behar  
dela jaso dute proposamenean.  
«Hiztun komunitate ahaldundu  
bat izatea nahitaezko ildo da  
bai diskurtso eta bai maila mi-  
kroan eragingo duten praktika  
linguistikoko egokiak indartzeko».  
Argi dute beren-beregi landu  
beharreko bidea dela, hor ere  
aldaketa handia sumatu baitute  
urteotan. «Urteetan ingurune  
horietako herritarrek eusle  
rol garrantzitsua jokatu dute  
bestelako guneetan, baina  
hori gaitasunari lotua egon da  
bereziki. Egun, ordea, eremurik  
euskaldunenetako herritarrek  
erdal gaitasun nabarmenki  
hobea dute oso gaztetatik, eta  
herritar ahaldunduak izateak  
baino ez du bermatuko eusle  
rol hori betetzea aurrerantzean  
ere».

muarekin lurgune euskalduna  
babestea eta hedatzea izango  
litzateke helburu, eta, aldi be-  
rean, Euskal Herriko udal-  
erri eta eskualdeen arteko hartu-  
emana eta dinamismoa hizkuntza-  
rentzat mesedegarri izateko moduan ga-  
ratzea».

Berritasun bat jaso dute pro-  
posamenean: «UEMAk bere so-  
rreratik erabili izan du *lurgune  
euskalduna* terminoa, gehienetan  
udal-erri euskaldunen eremuari  
buruz aritzeko. Dokumentu ho-  
netan, ordea, adiera zabalagoa  
eta oraingo zehaztugabeagoa  
emango diogu terminoari». Lur-  
gune hori zertan datzan zehaz-  
tea izango da, hain zuzen, orain  
abiaraziko den prozesuan landu  
eta adostu beharreko «alderdi  
garrantzitsuetako bat».

### Beste lege esparru bat

Irudikatu duten bidean aurrera  
egiteko bi «lanabes» proposatu  
dituzte. Lehena da lurgunerik  
euskaldunenak sendotzeko eta  
babesteko «lege esparru egokia»  
garatzea. Horren bidez, batez  
ere, «judizializazioaren» ondo-  
rioz sortutako oztopoak gainditu  
nahi dituzte, eta eremu horietan  
«politika ausartagoak» egiteko  
babes juridikoa lortu. Oldarraldi  
judizialari aurre egiteko ahalegina  
argia da hor; urteotan ehun epai  
baino gehiago plazaratu dira ad-  
ministratibo publikoak euskararen  
biziberritzearen alde hartutako  
erabakien kontra, eta tartean izan  
dira udal legeak —Araba, Bizkai  
eta Gipuzkoako toki erakunde-  
en jardunbideak, betebeharrak  
eta funtzioak zehazteko 2016an  
onetsia— euskara lehenesteko  
ireki zituen hainbat bide mozte-  
ko hainbat sententzia ere. Hor  
egin beharreko langintzaren ga-  
rrantzia nabarmendu zuen atzo  
Zearretak: «Izan ere, lurgune eus-  
kalduna indartzeko, premiazkoa  
da lege esparru egokia garatzea».

Lurgune euskalduna sendotze-  
ko plan integral bat da UEMak  
eskura nahi duen bigarren «la-  
nabesa»: «Plan horrek politika,  
estrategia eta ekintza multzo an-  
tolatuak bilduko ditu, erakunde  
publikoekin eta gizarte eragile-  
ekin lankidetzan», iragarri zuten  
agerraldian. «Planak barne har-  
tuko ditu politika, estrategia eta  
ekintza multzo antolatuak».

Aurkeztu dutena proposamen  
«irekia» da. «Euskal Herriko era-  
kunde publiko, alderdi politiko,  
sindikatu eta gizarte eragile-  
ekin partekatu eta aberastu nahi  
dugu», esplikatu zuen Aramendik.  
«Oinarrizko adostasun sozial bat»  
lortu nahi dute, eta dagoeneko  
eginak dituzte zenbait bilera  
euskalgintzarekin eta hainbat  
eragilarekin. ●

raren nagusitasunaren arabera,  
eta gune bakoitzeko politikek  
elkar osatzeko moduan. Abiara-  
ziko duten dinamika, oro har,  
euskararen indarberritze proze-  
sua «azkarragoa eta eraginkorra-  
goa» bihurtuko duela esan zuten  
atzo berriro. Horretarako bidea  
zein den azaldu zuen Aramendik:  
«Baliabide publikoen eraginkor-  
tasuna hobetu beharko litzateke,  
lurgune euskaldunari dagokion  
garrantzia aitortuta, gune hori le-  
gez babestuta eta euskararen bizi-  
berritzerako hauspo bihurtuta».

Aramendik esplikatu zuen di-  
namika hau euskalgintzan abian  
diren beste hainbaten barruan  
abiarazi nahi dutela. Gogora

ekarri zituen igaro hilabeteotan  
euskararen «pizkunde berriaren»  
inguruan abiarazi diren egitas-  
moak. Abenduan, Euskalgintza-  
ren Kontseiluak propio horiek gi-  
zarteratzeko ekitaldi jendetsu bat  
egin zuen Bilbon. «UEMAk ere bat  
egin du ekimen horiekin», gogora  
ekarri zuen UEMako ordezkariak.  
«Horiek sendotzea eta zehaztea  
da lurralde estrategiaren hel-  
burua, betiere arnaguneak eta  
udal-erri euskaldunak ardatz es-  
trategiko gisa hartuta».

### Bost irizpide

Bide horretan, hizkuntza politi-  
karen antolatzeko bost irizpide oro-  
kor proposatu dituzte. Baga: eus-

kararen lurralde eremu guztietan  
eragin behar da, eta «estrategia  
egokiak» garatu toki bakoitzean.  
Biga: eremu bakoitzaren erreali-  
tate soziolinguistikoa «egoki-  
tutako politikak» abiarazi behar  
dira. Higa: lurralderik euskaldun-  
enari «motor eta lidergo rola»  
aitortu behar zaio. Laga: arreta  
berezia eskaini behar zaie eremu  
horiei, eta «legez» babestu behar  
dira. Boga: bidea egin behar da  
eremu horiek «baliabide strate-  
giko» bihurtu daitezkeen gainerako  
eremuen euskalduntzerako eta  
euskararen indarberritzerako.  
Behin eta berriz nabarmendu  
dute zona euskaldunenek eus-  
kara «irradiatzen» dutela, eta

zabalkunde hori indartzeko bi-  
deak sortzea dela orain helburua.  
Dabid Anautek egin zuen horren  
gainerako zehaztapena: «Modu as-  
kotan gertatzen den irradiazio lan  
hori berariaz egitea eta bultzatzea  
ildo emankorra izan daiteke lu-  
rralde osoa euskalduntzeko aha-  
leginean».

Irizpide horiek ezartze aldera,  
UEMAk mahai gainean jarri duen  
estrategiaren arabera, ezinbes-  
tekoa da eremurik euskaldun-  
enenentzat «babes eta sustapen  
bereziko» eremu bat definitzea.  
Busturiko zinegotzi Maitane Zea-  
rretak eman zituen horren gaine-  
ko zehaztapenak: «Azken batean,  
babes eta sustapen bereziko ere-